

## 2011n, EAEko gazteek 11 lan-istripu hilgarri jasan zituzten


**EAEko 16 eta 34 urte bitarteko biztanleen artean, lan-istripu hilgarrien kopuruak behera egin du 2003tik 2011ra: 39 kasutik 11 kasura, hain zuzen ere.**

Apirilaren 28a **Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Munduko Eguna** dela-eta, EAEn bizi diren 16 eta 34 urte bitarteko gazteen lan-istripuei buruzko datu batzuk eskainiko ditu Gazteen Euskal Behatokiak.

2011n, 33.925 lan-istripu gertatu ziren EAEn; horietatik 33.654 (%99) arinak izan ziren; larriak 223 eta hilgarriak 48. 16 eta 34 urte bitarteko biztanleek 11.196 istripu arin izan zituzten (%99), 56 larri eta 11 hilgarri.

Lan-istripuen indizea adin-talde bereko 1000 okupatuk izandako bajadun lan-istripuen kopuruan oinarritzen da. 2011n, indize hori ‰36,2koa izan zen biztanleria orokorrean, eta ‰42,2koa 16 eta 34 urte bitartekoengan.

16 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, heriotza ekarri zuten lan-istripuak 2003ko 39 kasuetatik 2011ko 11 kasuetara jaitsi ziren, baina gora egin dute 2010etik, urte hartan 6 egon ziren eta.



2011n EAEn gertatutako lan-istripu guztietatik, ‰46 16 eta 34 urte bitartekoei gertatu zitzaien (11.263 kasu). Logikoki, lan-istripuen kopuruak gora egiten du gazteen artean, laneratze-maila areagotzearekin batera. Horrenbestez, gazteek izandako istripuen ‰77 26 eta 34 urte bitartekoei gertatu zitzaien.

Biztanleria orokorrari dagokionez, lan-istripuen %74 gizonei gertatu zitzaizkien; proportzioa zertxobait altuagoa da 16 eta 34 urte bitartekoen artean (%76). Bereziki aipagarria da 2011n lan-istripuetan hildako 11 lagunetatik, 10 gizonak zirela.

Laneko istripuen indizean ere (adin-talde bateko 1000 lagunen artean, istripua izan dutenen kopurua, alegia) generoen artean dagoen alde hori berretsi egiten da. 16 eta 34 urte bitartekoen indizea %62,3koa da eta adin-talde bereko emakumeena %21,1ekoa da.

Datuak lurralde historikoen arabera bereiziz gero, Bizkaian gertatu ziren 16 eta 34 urte bitartekoen 11 istripu hilgarrietatik 6. Istripu larrien kasuan, ordea, Gipuzkoak du kopururik altuena: 56tik 22 bertan erregistratu ziren.

Datuok [Osalan](#) Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearenak dira, Gazteen Euskal Behatokiak ustiatu ditu, eta eskuragarri daude [Gazteen Euskal Behatokiko Adierazleen Sistemari](#).

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**

